

OLIYUA ETA URA

Ontzi eder batian
zeukaten jarriya,
oliyo legun legun
bizi-ro garbiya.
Urak nai izan zuben
ontzi artara joan
eta nagusi modu
jarri bada bertan;
¡zarrazt! saltatu zuben
chit indar aundiyan,
nairikan oliyua
eruki azpiyan,
bañan oliyo ona
prestu eta zuzen,
abiyatu zan aren
gañera azaltzen;
Urak ikusirikan
zeturrela gora,
borroka egitia
zitzayon gogora,
ala abiyatu zan
indarka berela,
apar ta zipristiña
zirt zart zeriyo-la
purrustara egiñaz
bat eta bestera,

ea botatzen zuben
azpira osterera;
milla trama jarri ta
nastu arren dena,
alaz guztiz etzuben
egiñ naizubena;
eruki zuben zerbait
beraren azpiyan
bañan au izandu zan
denbora guchiyan;
bada laister igo zan
oliyua gora
eta ura etzan zan
betiko ondora.

.
.

Asko gizon onradu
oliyo modura
kaskarrak nai izaten
du bota zokora,
bañan etorritzian
neurriyaz denbora
arrazoi onoreak
igotzian gora
gaistoa botatzen du
betiko ondora.

JOSÉ ARTOLA.